

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2018

Hautagaia:

Agus BARANDIARAN

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

HAUTAGAIA AURKEZTEKO ARRAZOIAK / AURKEZPEN ESKUTITZA

Badira hogei urte baino gehiago arteen sailean lanean hasi nintzenetik; dantza eta musika alorretan, hain zuzen. Urteetan zehar jende ezagun eta esanguratsu asko ezagutzen duzu, haiekin lan egiten duzu, baina haien guztien artetik sari honetarako aurkezten dudan hautagaia aipatu nahiko nuke, Jose Agustin Barandiaran Iturriaga (Agus Barandiaran) trikitilari eta konpositorea; interpretazio eta instrumentazioan proposamen garaikideak egiten dituen Korrontzi musika tradizionalako taldearen sortzaile, kide eta muina; gaur egun, munduko musikak, folk eta musika tradizionalen eremuan, euskal musika, dantza, hizkuntza eta kulturaren ordezkarietako bat mundu mailan.

Urteak dira Agus Barandiaranekin lanean hasi nintzenetik, eta zinez pentsatzen dut arrazoi desberdinengatik Eusko Ikaskuntzak ematen dituen sarietako baten mereziduna dela, orain arteko hautatuen bikaintasun goraiagarritik at; guztiak pertsonalitate handiak, zientzia eta kultura, berrikuntza eta aurrerapen kolektiboan konpromiso aktiboa izan dutenak, gaur arte sarituak izan direnak eta, beraz, euskal gizarte osoaren ordezkari nabarmenak direlarik.

Pasa den urtean Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako hautagai berbera aurkezterakoan aipatu nuen bezala, “Baten bat bikaina bere esparruan, Arteei arduraldi osoa eskaintzen diena, eta mundu osoan euskal kultura zabaltzeko zortea duena baldin badago, hori Agus Barandiaran da; langile nekazina, adimendun pribilegiatua, musikari aparta, kultura eta tradizioaren maitalea”.

Elkarlanak eta urteek erakutsi didate hautagaiaren nolakotasun artistiko zein pertsonalak, eta ziurtatu dezaket eremu honetan ezagutu ditudan pertsonetatik honakoa bereizgarria dela, edozein gizakiren modura, amaigabeko barru ezezaguna daukana. Pertsona langilea, perfekzionista, borrokalaria, irmoa, karismatikoa, zehatza, funtzionala, azkarra, praktikoa, sortzailea, autodidakta, arduratsua... Energia handiko pertsona da, etengabeko funtzionamendu eta sorkuntzako, beti proiektu berrien bila dabil, erronka berriak, abangoardia berriak, bere ibilbidean garatzen, berritzen, hori bai, beti bere jatorria eta tradizioak mantenduz. Bere hizkuntza eta kulturaren zale sutsua da, eta doan tokira doala, horren oihartzuna ematen du. Beronen funtzionatzeko metodoan antolakuntza da nagusi; behatu, hausnartu, balioztatu, erabaki, ekin, eta azkenik, ikuskatu.

Agusek izan ditzakeen merituak jaiotzetiko edo jasotako gaitasunetatik harago daude, mundu mailan hainbat komunikabidek “euskal akordeoi diatonikoaren aparteko birtuosoak” bezala definitu izaten duten arren, ikuspuntu antropologiko eta sozialetik behatuz, bere bertute artistikoek balio handiagoa hartzen dute, Agus Barandiaranen baserri-jatorria eta biografia zaila ezagututa.

Laburbilduz, hautagaitza hau aurkezteko arrazoiak hauek dira:

- **Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV)** zientzia eta kulturaren inguruan lan egiten duen erakundeak eskaintzen duen **Manuel de Lekuona Saria** bezalako onarpena, Agus Barandiaranek Euskal Herrian zein atzerrian egiten duen lan kulturalaren ibilbiderako eta horren garapenerako pizgarri garrantzitsua litzateke.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

- Agus Barandiaran, musikari eta konpositore bikaina, munduko musiken esparruan gorldian dago, eta bidaiatzen den lurralde bakoitzean euskal kultura ezagutzera ematen du, gure lurraldea mapan kokatuz.
- Pertsona langile bezain egonezina da, bere lorpenak esfortzu eta jarraitutasunez jaso dituelarik. Aurrera ateratako proiektu anitzek harrera bikaina izan badute ere, Agusen lanak ez du etenik. Jorratzen darraien proiektu berriak ere anbizio handikoak dira, erakutsi, gozatu eta zabalduak izateko hainbat balore eta diziplina batzen dituen sorkuntzak izango direlarik.
- Musika esparrua alde batera utziz, bere baserri-jatorriak eta heziketa tradizionalak euskal kultura eta tradizioak babestera bultzatzen dute, hauei bere ikuspegi pertsonal garaikidea ematen dien arren. Hori abiapuntu, publiko berrien eta gazteen artean gure musika, dantza, hizkuntza eta kulturarekiko motibazio eta interesa sustatzen saiatzen da.
- Agus Barandiarani buruzko literatur obra biografikoaren argitalpenak interes berezia izan dezake, eta ezagutzera emango luke musika munduko pertsona baten eta bere ibilbidearen istorioa; bi bizi bailiran, baserria batetik eta musika, eszenatokiak, bidaiak eta produkzio musikalak bestetik dituen pertsona ezagun batenak, alegia.

Aipatutako guztiagatik, sari honen arrazoia euskal kulturako pertsona ezagunen merituen onarpena baldin bada, eta bere obra osoak ibilbidean zehar eta bizitzan, oro har, Euskal Komunitate Globalean interes esanguratsua izatea bada, Jose Agustin Barandiaran Iturriaga (Agus Barandiaran) izan daiteke kontutan hartu beharreko pertsona horietako bat eta, halaber, sariaren zilegizko hautatua.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

HAUTAGAIAREN CURRICULUM VITAE

AGUS BARANDIARAN – (JOSE AGUSTIN BARANDIARAN ITURRIAGA)

LAN IBILBIDEA

- Musikari eta konpositore (Trikitilari, euskal akordeoi diatoniko jotzailea).
- Bazkide-sortzaile, Zuzendari orokorra eta management eta komunikazio arduradun “Baga-Biga musika ideiak S.L.” (Mungia, 2005-2018). Esklusiban musika eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean lan egiten duena, azken hamar urteetan 120 ikus-entzunezko ekoizpen eta urtero batez besteko 300 zuzeneko ekoizpen jorratzen dituena.
- Bazkide-sortzaile eta management eta komunikazio arduradun “Korrontzi” musika taldearekin (Mungia, desde 2004-2018).
- “Zai-Zoi edizioarena S.L.”-aren bazkide-sortzaile, musika eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako editoriala (Bilbo, 2008-2018).
- Zuzendari-orde Basauriko Udal Musika Eskolako (Basauri, 2014-2018).
- Trikitixa irakasle Basauriko Udal Musika Eskolan (Basauri, 2011-2018).
- Hizlari-kolaboratzaile Euskadi Irratian (Bilbo, 2017-2018).
- Hizlari-kolaboratzaile Bizkaia Irratian (Bilbo, 2016-2018).
- Musika Industriaren Elkarteko (MIE) zuzendaritza batzordeko kide (2016-2018).
- “Gazteok S.L.” enpresako langile (Galdakao, 2004-2005).
- “Electrotécnica ARTECHE Hermanos S.A.” enpresako langile (Mungia, 1997-2004).

MUSIKA HEZKUNTZA

- Trikitixa, solfeo eta armonia (1985. urtetik).
- Trikitixa irakasle partikularrak: Rufino Arrola, Iñaki Zabaleta, Imuntzo, Joseba Tapia, besteak beste.
- Nazioartekoak: Mairtin O`connor (Irlanda), Serge Desaunay (Frantzia), Totore Chessa (Sardinia), Raynald Ouellet (Québec), besteak beste.
- “Trans-europe-diatonique”, munduko musikei buruzko ikastaroak (Bilbo, 1994 eta 1995).
- "Radici musicali nel mondo lusofono", portugesa-hiztun munduko folk musikaren inguruko ikastaroak (Pontedera, Italia, 2008).
- Musika Tradizionalaren Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa.
- Konposizioa: Autodidakta.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

SARI, AIPAMEN ETA AITORPENAK

- 2016 - World Music Charts Europe 2016. Korrontzi on the TOP100, best discs of the year.
- 2016 - World Music Charts, otsaila. 17 .postua.
- 2015 - ROOTS MUSIC REPORT, Top100.
- 2015 - World Music Charts, martxo. 13. postua.
- 2014 - Womex. Atal Ofiziala.
- 2014 - World Music Charts, otsaila. 6. postua.
- 2012 - Hemendik sariak. Agus Barandiaranen musika ibilbideari aitortzea.
- 2008 - Eurofolk saria, Europako talderik onena (Malaga).
- 2006 - Navelgas saria, estatuko talderik onena (Asturias).
- 2006 - Eurofolk saria, estatuko talderik onena (Malaga).
- 2006 - Ortigueirako Jaialdia, 3. talde rik onena (Galizia).
- 1996 - Akordeoirako Konposizio Berrien Txapelketa, trikitixa, 3. saria (Azpeitia).
- 1995 - Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelpetan bigarren sailkatua.
- 1994 - Bizkaiko Trikitilari Txapelketa Nagusiko irabazlea.
- 1994 - Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketa Nagusiko bigarren saria.
- 1993 - Bizkaiko Trikitilari Txapelketa Nagusiko irabazlea.
- 1992 - Bizkaiko Trikitilari Txapelketa Nagusiko irabazlea.

EGONALDIAK ATZERRIAN

- PORTUGAL (Castro Verde eta Ponte de Sor).
- KROAZIA (Rovinj).
- ITALIA (Pontedera eta Mascalucia).
- FRANTZIA (Frontignan).
- BRASIL (Aquiraz, Ceará).
- "7 luas orkestra 20" ORKESTRA (Pontedera, 2012).
- Urtero, batez beste, 30 kontzertu herrialde desberdinetan: Frantzia, Alemania, Kroazia, Eslovenia, Italia, Sizilia eta Sardinia, Hungaria, Holanda, Belgika, Malasia, Cabo Verde, Portugal eta Azore Irlak, Morocco, Irlanda, Ingalaterra, Israel, Estatu Batuak, Kanada, Brasil, Argentina, Txipre, Grezia, Txekiar Errepublika, Errumania...

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

ESKAINITAKO IKASTAROAK

- Trikitixa irakasle Lekeitioko “Rosa María de Azkue” ikastolan (1994-1997).
- “Euskal Akordeoi Diatonikoa”ri buruzko hitzaldiak, hainbat tokitan (2005. urtetik).
- Euskal musikaren inguruko “Instrumentuaren teoria eta praktika”, UEU Udako Euskal Unibertsitatea (Eibar, 2005).
- “Séte Sois Sete Luas” Jaialdiak antolatutako Trikitixa “Master Class”-ak Portugal, Brasil, Kroazia, Italia eta Frantzia (2010-2011).
- “Euskal Herriko Triki Musikaren Historia”, Getxoko Udal Kultur saila (2011).
- “Musika eta dantza tradizionala” “Master Class”-ak, XVI. Nazioarteko Folk Jaialdia (Plasencia, 2012).
- Musika eta dantza tradizionala (2) (Ponte de Sor, 2015).

ZUZENeko EMANALDIAK

- Erromeria emanaldiak Euskal Herrian barna (1990-1995).
- Urgabe taldearekin 850 kontzertu (1995-2006).
- Urgabe taldearekin telebista astekari saioak:
 - “Superbat” 1996-1997. ETB. Abasolo estudioak (Laudio).
 - “Goenkale esker-mila” 1999-2000. ETB. Miramon estudioak (Donostia).
- “Idi Bihotz” taldearentzako kantua konposizioa, urte hartako IBILALDIA zela eta, Balmasedako “Zubi Zaharra” ikastolak antolatuta (2000).
- KORRONTZI Taldearen zuzenekoei buruzko telebista saioen grabaketa ETBrako (2010, 2014 eta 2015).
- “URRATSA” ikuskizunaren aurkezpena Getxo Folk Jaialdian (2010) IGOR YEBRA nazioarteko dantzari klasikoarekin, folk musika eta dantza klasikoa bateratuz.
- “7 luas orkestra 20”-rekin bira Europan zehar (2012), honako formazioarekin: Luís Peixoto (Portugal), Mario Incudine (Sizilia), Shlomo Deshet (Israel), Pino Ricosta (Sizilia), Mara Aranda (Valencia) eta Agus Barandiaran (Euskal Herria).
- KORRONTZI Taldearekin 850 kontzertutatik gora, batez beste urteko 60 kontzertu (2005-2018).

ARGITARATUTAKO DISKOAK

- Urgabe (Urgabe), Elkarlanean 1999.
- Urgabe (Hi bizi hadi), Elkarlanean 2002.
- Urgabe (Edan hemendik), Oihuka 2004.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

- Urgabe (Isilean), Oihuka 2006.
- Korrontzi (Korrontzi), Nubenegra 2006.
- Korrontzi (Getxo), Baga-Biga 2008.
- Korrontzi (Infernuko hauspoa), Baga-Biga 2010.
- "Tradition 2.1", Baga-Biga 2013.
- "Symphonic Bilbon", Baga-Biga 2014.
- "Korrontzi Dantzan", Baga-Biga 2015.
- "Korrontzi Benefic", Baga-Biga 2016.
- "7 luas orkestra 20" albuma, nazioarteko musikariek osaturiko taldea (2012).
- Herrialde desberdinetako disko-lanetan 30 bat kolaborazio (2008-2018).
- Musika konposizioak kultur ekitalde eta topaketa desberdinetarako.
- "Basque Selfie" (sorkuntza prozesuan) 2018.
- "Kopleruek" (sorkuntza prozesuan) 2019.

PROIEKTU ARTISTIKO, DIDAKTIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK KORRONTZIREKIN

Korrontzi	Diskoa.	2006
Getxo	Zuzeneko diskoa, gonbidatuekin. CD+DVD.	2008
Infernuko Hauspoa	Diskoa. Oinkari dantza Taldearekin. DVD.	2010
Tradition 2.1	1-Diskoa. Mundu osoko hainbat kolaborazio musikal eta instrumentalak 2-Zuzeneko emanaldiak.	2013
Symphonic Bilbon	1-Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin zuzeneko disko grabaketa. CD+DVD. 2-Zuzeneko emanaldiak.	2014
Korrontzi Dantzan	1-Diskoa. Euskal sortzaile desberdinek Korrontziren musikarekin sortutako dantzen bilduma + zenbait dantza irakasteko atal didaktikoa. CD+DVD. 2-Zuzeneko emanaldiak. Korrontziren zenbait dantzen irakasketa herri desberdinetako taldeei eta ondorengo	2015. urtetik

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

	zuzeneko kontzertu emanaldiak elkarlanean talde horiekin.	
Korrontzi Benefic	<ul style="list-style-type: none"> Diskoa. Abesti berri baten sorkuntza gaitz desberdinek jotako haurrak laguntzeko proiekturako. CD+Hurrek marraztutako postalak. GKE desberdiei laguntzeko ongintzazko kontzertuak. 	2016. urtetik
Korrontzi Band	<ul style="list-style-type: none"> Zuzeneko bideoklipa. Zuzeneko emanaldiak. Korrontziren musikaren moldaketak Bandarako eta ondorengo kontzertu emanaldiak herri desberdinetako Musika Bandekin batera. 	2017. urtetik
Korrontziren Galbahea	Zuzeneko emanaldiak Korrontziren musikarekin, honako formazioan: Korrontzi (Bizkaia), Orquesta Ciudad de Pamplona (Navarra) eta Leinua Dantza Konpainia (Aquitania).	2018
Basque Selfie (ekoizle, aktore nagusia eta soinu banda konpositore eta jotzaile)	Zine luzemetraia + Soinu Banda. (DONOSTIAKO ZINEMALDIKO ZINEMIRA SAILERAKO HAUTAKETA OFIZIALA)	2018ko iraila
Kopleruek (Kopla zahar eta Xabier Amurizaren koplen ingurukoa)	Sortzen. Ikerketa + Disko berria + ikuskizun berria.	2019. urtetik aurrera
Hitzaldiak	Trikitixaren inguruko hitzaldiak Agus Barandiaranen eskutik.	2005. urtetik
Ikastaro eta tailerrak	Dantza eta musika klase praktikoak Agus Barandiaran eta Izaskun Iturriren eskutik.	2015. urtetik

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

KORRONTZIREKIN AZKEN HIRU URTEETAKO EMANALDIAK EUSKAL HERRITIK KANPO

BIRAK	
Nazioarteko Birak azken 3 urteetan: 7	Malasia, Israel, Washington, Kanada ekialdea (2), Kanada mendebaldea, Québec
Birak Europan azken 3 urteetan: 24	Frantzia (2), Portugal (9), Belgika, Holanda, Hungaria (2), Kroazia, Eslovenia, Sizilia, Italia, Ingalaterra (2), Sardinia, Txekiar Errepublika(2)
Bira estatalak azken 3 urteetan: 17	Madril (7), Galizia (3), Katalunia (3), Murcia, Huesca, Castilla la Mancha, Burgos
Euskal Herritik kanpo azken urteko emanaldiak (2018):	Bartzelona (2), Austria, Txekiar Errepublika, Toledo, Burgos, Tàrrega, Ingalaterra, Alcázar de San Juan, Lugo,
-Giras: 17	Teruel, Vilariño (Galizia), Castro Verde
-Conciertos: 29	(Portugal), Cabo Verde Irlak, Normandia, Reunión Irla, Malaga, Madril, Vic.